

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Akats materialak zuzentzea Alkatetzaren martxoaren 22ko 2023/1202 Dekretuan (2023/04/03ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua). Dekretu hori Administrazio Bereziaren eskalako, teknikarien azpieskalako, goi-mailako teknikarien klaseko A1 taldeko (2022ko lan-eskaintza publikoa) goi-mailako teknikariaren lanpostu bat (1) barne-sustapeneko txandaren bidez betetzeko deialdiari eta oinarri espezifikoari buruzkoa da.

Alkateak Alkatetzaren 1813/2023 Dekretua eman du. Honela dio xedapen-zatiak:

Lehenengoa: Alkatetzaren martxoaren 23ko 1202/2023 Dekretuan (2023/04/03ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua) atzemandako akats material hauek zuzentzea. Dekretu hori Administrazio Bereziaren eskalako, teknikarien azpieskalako, goi-mailako teknikarien klaseko A1 taldeko (2022ko lan-eskaintza publikoa) goi-mailako teknikariaren lanpostu bat (COD 244 «IKT proiektuetako burua») barne-sustapeneko txandan eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeari buruzkoa da.

1202/2023 Dekretuaren ebazpen-zatiaren hirugarren atalean,

— Hau dioen tokian:

«*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea».

— Hau esan behar du:

«*Hirugarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea»

Seigarren oinarrian.—Hautaketa-prozesua, Bigarren ariketaren atalean, euskarako proba (borondatezkoa eta ez baztertzaila), lehen paragrafoan:

— Hau dioen tokian:

«... Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 99.1 artikuluan ezarritakoaren arabera».

— Hau esan behar du:

«... Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 189.1 artikuluan ezarritakoaren arabera».

Zazpigarren oinarrian, hirugarren paragrafoan:

— Hau dioen tokian:

«... Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideetan».

— Hau esan behar du:

«... Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako irizpideetan.

Bigarrena: Zuzendutako akatsen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena: Ebazpen hau Toki Administrazioetik Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari jakinaraztea.

Basaurin, 2023ko maiatzaren 16an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren